


**HERRI BAKOITZAK,
BERE MITOLOGIA!**

**EUSKAL HERRIAK
BEREAK!**

**OLENTZERO ETA
MARI DOMINGI**



Segura
2020ko abendua



XVII. IPUIN, BERTSO ETA MARRAZKI SARIKETA

Segurako Elorri eta Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri elkarteek, euskara eta euskal kultura suspertu eta indartu nahien antolatzen dute hamazazpigarren aldiz sariaketa hau.

Segura, Zerain eta Mutiloako haur eta gaztetxoaz gain, Iparra-Hegoa aste kulturalean partaide izan ditugun Ikastetxeetara hedatu nahi genuke ekintza hau, baita Bertso Eskoletara ere. Horrela Euskal Herriko haurren, esamolde eta euskalki ezberdinez, elkar ezagutu eta aberasteko egokiera izango dugu.

Lanen oinarriak eta baldintzak honakoak izango dira:

1 – Adin talde bakoitzak bere gaia izango du eta aukerak ondoren datozenak.

2 – Aukera ezberdinak:

- **Ipuinak:** banaka egin eta aurkeztuak izango dira.
- **Marrazkiak:** banaka eta ORIJINALAK, ez kopiatuak.
- **Bertsoak:** banaka edo binaka lehen bi adin taldeetakoak eta azken adin taldekoak banaka.

Bakoitzak atal bakarrean, bitan edo hirutan parte har dezake.

3 – Adin taldeak, gaiak eta luze laburrak:

- **1. eta 2. mailakoak** (6-7 urte).

Gaia: 'Aurten Olentzero beltza datorkigu' Ipuina orrialde bat eta bi kopia edo bertso.

- **3. eta 4. mailakoak** (8-9 urte).

Gaia: 'Koronabirusa kalean eta Olentzero etxean' Ipuina bi orrialde eta 3 bertso edo kopia.

- **5. eta 6. mailakoak** (10-11 urte).

Gaia: 'Aurten plastikoa duen ezer ez du ekarriko Olentzerok. Zer ekarriko dit?' Ipuina bi-hiru orrialde eta 4 bertso.

4 - Lanak entregatzeko azken egunak eta lekuak: azaroaren 27a, ostirala, ikastetxe bakoitzean, eta 30 astelehena Segurako Elorri elkartearen edo ondoko telefono zenbakira deituz (0034) 647052529. Iparraldekoek, Xaia ostatuan azaroaren 27an.

5 – Sariak: Aurten koronabirusak sortu duen egoerara moldatuko dira, ez da guztientzat saririk izango. Arlo bakoitzeko lan txukunenen egileei aurrez jakinaraziko zaie, eta hauek bakarrik etorriko dira sari banaketara. Saria "diploma edo agerkai" berezi bat izango da.

6 – Sari banaketa abenduaren 12an, larunbatean, egingo da, eguerdiko 12etan, Segurako Botikaxahar kulturgunean. Aurten ez da hamaiketakorik izango.

7 – Epai mahaia, idazten, bertsoan eta margolaritzan adituak direnak osatuko dute.

Oharra: Saria edo aipamena jasotzen duten lanak, bere horretan, argitaratzeko asmoa denez, ahalegindu ahalik eta txukun idazten (ahal bada ordenagailuz) eta marrazten.

Antolakuntzaren eskaera: Haurrek beraiek egindako lanak izan behar dira, irakasleen edo gurasoen laguntza berezirik gabe.



Antolatzaileak:
Elorri kultur elkarte eta
Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri
euskara elkarte

Euskal
Herrian
euskaraz!